# Bremengo Musikariak

Claudio Casadio-ren sorkuntza



Xabi Paya-ren Bertsioa



Grimm Anaien alegia ezagunetik abiatuz, Paraiso Antzerki Taldeak bertsio berezi bat egin du, non errimadun testua eta musika batzen diren, giro bitalista eta poetikoa sortuz.

Lau aktore musikarik, kontzertu baten erdian, era komiko eta musikalean beren zoritxarrak kontatzen dituzte: astoa, txakurra, katua eta oilarra dira. Guztiak bizitza ikaragarri baten sufrimenduez kexatzen dira: bakardadea eta kolpeak, gosea, kateak, ibilaldi luzeak eta labean amaitzeko beldurra... Zalantzazko ikuspegi horren aurrean amets bat nagusitzen da: Bremen. Eta horrela hasten da abentura.







Hantxe doaz, munduko bideetatik lau musikariak abesten eta musika-tresnak jotzen, nekeak eta etxeko minak harrapatzen dituen arte. Une horretantxe, hain justu, alegia guztietan bezala, etxe bat azaltzen da, gaua igarotzeko aterpe segurua dirudien etxola. Baina gau hori ez da lasaia izango, hiriko gangster talde batek etxe hori hautatu duelako bere harrapakina ezkutatzeko. Zorionez, zortea lau lagunen alde egongo da eta beren bidaia jarraitu ahal izango dute.

Ikuskizuna bizitzeko alaitasunari, laguntasunaren balioari, bidearen zailtasunei aurre egiteko ausardiari eta helmugara elkarrekin iristeko itxaropenari egindako kantua da. Helburua ez da soilik geografikoa, izan ere Bremen edozein lekutan egon daiteke, musika nota bakoitzaren bihotzean edo musika nota bat jotzen den edozein zokotan...

*Sorkuntza hau Italiako Accademia Perduta – Romagna Teatri de Italia eta Paraiso Antzerki Taldeen arteko lankidetza-proiektuaren zati da. Agertoki gainean 30 urte daramatzagula ospatzeko era berezia da.*



# Bremengo Musikariak

| | |
|---|---|
| **INTERPRETEAK** | Eriz Alberdi, Iker Díaz, Sara Susaeta eta Oscar Alvarez |
| **ESPAZIO ESZENIKOA** | DISEINUA: Marcelo Chiarenza<br>GAUZATZEA: Carlos P. Donado eta Ana Fernández |
| **JANTZIAK** | Pilar López eta "Taller de Begoña" |
| **MASKARAK ETA ATREZZOA** | Ana Fernández eta Lucia Baldini |
| **ARGIZTAPENA** | Javier García |
| **ARGAZKIAK** | Quintas Fotógrafos |

**MUSIKA LAGUNTZAK**
Ana Isabel Bravo (Saxofoia), Ricardo Llanos (Akordeoia), Olaya Montoya (Perkusioa), Javier Antoñana (Gitarra), Jesús Urrutia (Bonbardinoa), Javi Flores (Tronpeta), Nora Chena eta Carmen Quiñones (Ahotsak).

| | |
|---|---|
| **GRABAZIO-ESTUDIOA** | El Canton de la Soledad |
| **KONPOSIZIO MUSIKALA** | Marco Versari |
| **MUSIKA ZUZENDARITZA** | Paco Ibáñez Iribarria |
| **EUSKARAZKO BERTSIOA** | Xabi Paya |
| **EGILEAK** | Claudio Casadio eta Giampiero Pizzol |
| **ZORKUNTZA** | Claudio Casadio |
| **ZUZENDARITZA** | Tomás Fdez. Alonso |

Gure eskerrak Garcia Sardon Doktoreari eta Carmen Quiñones Fonoterapeutari.

Gomendatutako adina: 7tik 11 urtera eta familiako guztientzat.





## PARAISO ANTZERKIA

**HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKIGINTZA ZENTROA**


Abetxuko Pueblo 8B – 01013 Vitoria-Gasteiz
Tfno: 945 289 323 / Fax: 945 269 184
e-mail: teatroparaiso@telefonica.net



Laguntzaile:

KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Kolaboratzaile:

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala

Honakoekin elkartua:

eskena
Empresas de Producción Escénica Asociadas
Produkzio eszenikoen enpresa elkartuak